

HIZKUNTZ EGOKITASUNA EUSKAL TELEBISTAKO SAIOETAN

Egoitza, (Bilbo), 1994.02.26

Igone Etxebarria Zamalloa

Euskal Telebistaren, eta beste komunikabide guztien helburu nagusia komunikatzea da, entzule, ikusle edo irakurleekin bat egin, zabaldu nahi den mezua ondo ulertzeko bideak jarritz. Ez dago zalantzarik komunikazio hori lortzeko hizkuntza zuzen erabiltzeak garrantzi eta zeri-kusi handia daukala. Entzule-ikusleek entzuten duten hizkuntza jaso eta bapatean eurenganatu egin behar dute, hizkuntza bitartekoa da komunikazio mota honetan baina inoiz ezin da traba izan. Berez-berez, ia norbera konturatu gabe zuzenean buruan sartu behar da hizkuntza eta beronen edukia.

Euskara zuzen erabiltzea, kalitate onekoa izatea zelan definitu. Nik puntu batzuk ezinbestekoak ikusten ditut: gramatika arau jakin batzuk bete, hizkuntzak berak dituen errekurtsuetara jo, jatortasunari eutsi, erabiltzeko moduaren ondotik ibili, kasuan kasurako adierazpide egokiak aukeratu, eta zentzuz jokatu. Jakina, zerrenda luzatu egin daiteke, baina gutxi gorabehera nondik norako joera den ikusten delakoan nago.

Gaur egun Euskal Telebistan hau guztiau lortzeko berezko arerio batzuk daude derrogrirrez kontuan hartu beharrekoak:

– Saio batzutan gauzak behar bestean lantzeko astirik eza.

– Itzulpena da argi eta garbi kalte gehien egiten duena, baina ezinbestekoa da. Hainbat saio beste hizkuntza batean egin ondoren euskaratu egiten dira (bikoizketa osoa kasurako), eta beste hainbat gauza, hemen bertan sortu arren, erdaraz sortzen dira. Horrez gainera komunikabideek elkarri begiratzen diote, eta beste komunikabide gehienak, eredarrienak tartean direla, erdarazkoak dira.

– Hirugarren areioa guretzat, momentu honetan, sakabanaketa da. Hau da, beste arrazoi batzuk direla-ta. ETBko programazioa talde, pro-

duktora eta behargin katea askoren artean sakabanatuta dago bateratzea eta denari hizkuntza tratamendu bera ematea zailagoa da.

Hau azalduta, beste ohar bat egin beharrean nago. Sarritan entzuten dut esaten “telebistako kazetariak hau eta bestea”, eta horretatik atara dut askotan telebista kazetaritzarekin lotzen dela. Baina topiko hori apurtu egin behar da ze, egun bateko programazio osoari begiratzen badiogu kazetaritzari lotutako denbora proportzioan oso txikia da: egunero hiru albiste-saio, egun batzutan informazioari lotutako beste programaren bat (Iparra, Egunbete, Harira), eta kirolak, kirol-kazetaritza esparru honetan sartuta. Baina gainerako guztia zelan betetzen da: lehiaketak (Hor dago koska, Gezurra nagusi), kulturalak eta saio entretenigarriak (Sustraiia, Hitzetik hortzera, Euskal Herritik, Show show, Boulevard), eztabaidak (Txuribeltz), umeentzako programak (Superbat, Konta ditzagun gezurrak, pailasoak...), hemen sortutako telesail eta umorezko programak (Txokolatex, Duplex), eta bikoizketa (dokumentalak, marrazkiak, filmeak...). Hori guztiori kontuan hartuta ikusiko dugu zenbat lanbide nahasten edo tartekatzen diren telebistako produktzioan: kazetariez gainera, itzultzaile-egokitzzaile-bikoizle, gidoigile, aktore, produktore, esatari, aurkezle eta besteren bat ere behar bada. Beraz, ez da egokia telebista kazetaritzarekin huts-hutsean lotzea.

Euskal Telebistak, beste komunikabideen aldean, ezaugarri bereziak ditu: ahozko komunikabidea da, eta hori ezin da inoiz ahaztu. Irudiaz baliatzen da, baina era berean irudiaren menpe dago. Programazio barrietate handia dagoen neurrian giro, egoera, pertsona mota eta leku barrietateak ere ez dauka azkenik, benetako zein fikziozko, gure arteko zein guretzat ezezagun izan. Eta horrek estualdi bat baino gehiago sortu izan digu denoi.

* * *

Gaurko gaiari helduz, lehenengo ta behin euskararen erabilera zuzena gure arlorako zer den zehazten ahaleginduko naiz. Nik zuzentasun hori arlo bitan ikusten dut: alde batetik gramatika arauak betetzea eta zuzentasun gramatikalari buruzko muga batzuren barruan ibiltzea. Baina jakina da gramatika zuzentasunak ez duela jatortasuna ziurtatzen, eta horregatik besete irizpide bat euki behar da kontuan: kontestuaren araberako egokitasuna. Esakera bera kontestu batean zuzen egon arren beste batean baliteke oker egotea, guztiz lekuz kanpo dagoelako. Bi arlo hauek neurtzen zaila da guztiz, bigarrena batez ere. Eta zaila da subjeti-boa delako. Gauza agiriko edo argi batzuk gorabehera, iritzi, gustu eta norberaren erreferentziak daukate eragina, eta emaitza halakoa izango da.

Beti hartu behar da kontuan nork, non eta norentzat esateko den. Nori zuzenduta dagoen, zer programa mota den, pertsonaiaren izakerak zer adierazten duen, saio formala ala informala den...

Adibidez, saio batean kantari batek hartuko du parte eta aurkezleak kantari hori aurkeztu behar du. Giro lasaia da saioan, denak dotore-dotore jantzita, itxura ona eman nahi da, eta orduan aurkezleak esaten du: "Kriston martxa daukan kantaria dugu". Argi eta garbi lekuz kanpo dago.

Edo beste adibide bat: albiste saio batean, kirolari oso ospetsu bati buruz ari direla, esaten dute ospetsuago egin dela aldizkari batean "titi hutsik" agertu zenetik. Ez ote da hobeto esatea "bularrak agirian", edo "gerriz gora biluzik".

Retegik erretiratu egingo dela agertu zuenean, berriz ere albiste saio batean, esan zuten "inor ez denez hazitarako...". Ez ote da gogorregia? Erantzuna baiezkoa nahiz ezezkoa izan daiteke norberaren erreferentzien arabera, baina horrelakoetan, zalantza sortzen den momentutik beste forma batera jotzea dagokigu.

Euskal Telebistan momentu honetan zazpi laguneko taldea ari gara lanean hizkuntza gaietan. Gure helburu nagusia telebistako estiloa sortzea da, lehen aipatu dudan estilo ugaritasunari erantzun ahal izateko. Eguneroko lanean arazo, zalantza eta momentuan erantzun beharreko galdera asko sortzen da, baina ardurarik handienetakoa bateratsu jokatzea da. Hau da, adibidez programa batean esakera bat informalegia delako kentzea erabaki bada ahalegina egin behar da gero beste batean ez sartzeko. Gure zeregina hori da: irizpideak finkatu jendeari helarazi, eta bete daitezeela ziurtatu. Gaur egun ez gara den-denera heltzen, eta inoiz, helduta ere ezin dugu ezer egin, denpora, arazo teknikoak edo bestelako arrazoiak direla-ta (lehiaketa izatea...).

* * *

Baina ez naiz luzatuko zer egiten dugun eta zer ez azaltzen (norbaitek zerbait jakin gura balu gero eztabaidan hitz egingo dugu), azken batean gure lanaren emaitza telebistan irteten dena da, eta hori edonork ikus dezake. Interesgarriagoa deritzat zer arazo izaten dugun azaltzeari, eta horrela Jardunaldi hauetatik lanerako bideren bat sortuko balitz, nondik nora jo, edo zeri heldu pentsatzen hasi orduan pista batzuk emanda egongo lirateke.

Berez, nik erantzun edo azalpenak barik galderak dakartzat. Guk galderoi, ondo edo txarto beti ematen diegu erantzuna, ezin gara gauzak

esan gabe geratu, zelan edo halan bota egin behar dira. Baina edozein modutan, erantzun horrek nolakoa izan behar duen denon artean finkatzea litzateke onena batzuk era batera eta besteak bestera ibili ez gaitzen. Hona ba gaietariko batzuk:

—Lehenago esan dut Euskal Telebista ahozko komunikabidea dela, eta ahozkoa den aldetik gure erreferentzia liburuak baino gehiago herrian erabiltzen den ahozko hizkera da. Horrez gainera, ezin da inoiz ahaztu nori zuzenduta dagoen, eta publikoaren barruan era askotako ikusle-entzule daudela: leku eta euskalki ezberdinetakoak, zahar eta gazteak, euskaldunzahar eta berriak, eskolatu eta eskolabakoak. Orduan, zilegi da herrian erabiltzen den moduko hizkera erabiltzea telebistan? Zein saio motatan? Zein pertsona motak erabilia? Ahozko euskalkiak sartu bai ala ez? Eta laburdurak? Norainokoak edo zeintzuk? Zein kontestutan? Balio dute hizkuntza mailak bereizteko ala beste bereizketa batzutarako bakarrik erabil daitezke?

— Euskaltzaindiak arau eta gomendio batzuk eman ditu euskara baturako. Ez dago dudarik telebista tresna ezinbestekoa dela arau horiek betiko finka daitezten, eta gainera inork ez du zalantzan jartzen telebista euskara batuan egin behar dela. Baina arau horiek idatziz eta ahoz derrigor beti horrela erabiltzeko eginda daude? Kasu baterako, aurrerantzean beti esan behar da “honetan guztian, eta horrekin guztiarekin”? Beti horrela esan behar bada ahozko hizkera hierrikoiera hurreratzeko eta hango erreferentzia erabiltzeko helburua beteko litzateke? Eta beti horrela esan behar ez bada nork ipini behar du muga, edo nork esan behar du arau edo gomendioa nola interpretatu behar den ondo eta behar den moduan betetzeko?

Honelako beste adibide argi bat aditzen jokoarena da. Euskara baturako aditz laguntzailearen sistema aspaldidanik dago onartuta. Ordutik badakigu subjuntiboa eta aginte erako aditzekin aditz erroa ipini behar dela eta ez aditz partizipioa. Hori ez da beti betetzen, ezta idatziz ere. Honezkeru komeniko litzateke argitzea ia arautzat hartu behar den ala ez. Badakigu “utz ezazu” eta “utz iezadazu” aditz jokoak horrela idazten direla ere, baina nola ahoskatu behar dira? Askok esango dute, horrela idatzi behar bada horrela esan; eta beste askok ostera esango dute horrela ez dela inon esaten, eta lehendik ere esateko modu asko dagoenez ez asmatzeko beste ahoskera bat. Iritziak iritzi, orain arte erabilitakoen artean hurrengo hauek: “utz ezazu”rako “utzazu, uztazu, utz ezazu, utzi-zu”, eta “utz iezadazu”rako “utzidazu, utzadazu, utzi zadazu, utz iezadazu”.

Forma sintetikoetan araututakoak “emadazu, esadazu” dira, beraz, “emaidazu, esaidazu” eta antzekoak zuzendu egin behar dira beti?

— Maileguak direla-ta, guk asko erabiltzen ditugu. Batzuk ezenbestean eta beste batzuk euskarazko hitzekin ordezkatzeko modukoak. Baina maileguak ahalik eta gehien ebitatzeko joera hartzea da komenigarriena? Oso leku txikian erabilia, arkaikoa eta esanahia mugatuagoa zeukan hitza gaurko erabilerarako normaltzat bultzatzea hobeto da mailegua hartzea baino? Eta zer esan mailegu euskaratuei buruz? Guk “gailur” hitza zentzu batean erabiltzen izan dugu, gaur egun ostera, “bilera nagusi” esanahia zabaldu da frantsesez eta ingelesez daukan zentzu bikoitzari jarraituz. Hori asko kritikatu izan da, horren ordezkari bilera nagusi esan daitekeelako, baina joera baztertu beharrekoa da? Eta baztertzekoa ez bada, non ipini muga? Hau da, “elkarrizketak puntu hilean daude” esatea zilegi da bide horri berorri jarraituz?

— Euskaldki bakoitzeko hitzen esparrua ezberdin banatzen denean berriz ere aukeratu beharra dago. Adibidez bizkaitar batentzat “behatzez” jatea nahiko zaila eta antojugarria da, eta gipuzkoar batentzat ostera “lanean ari denari” “lanean dagoela” esatea iraingarri beharbada. Honen harira “etxean dago” eta “lanean dago” desegokitzat jo izan dira “etxean da” eta “lanean ari da”-ren alde. Honelakoetan gramatika eta hiztegiatar jotzea dago, baina berriro lehengora goaz, hiztegiak normalean idatzitako eruedetan oinarrituta daude eta. Beraz, bereizketak egitea, eta lekuren batean bereizten bada horri eustea da jokabide onena ala beste leku batzutan bereiztu barik erabiltzen denez ez da derrigorra bereiztea? Honelako kasuak ditugu anaia-ahizpa-neba-arreba, gorpu-gorputz, atzamar (eri)-behatz, orduko (aurretik)-orduko (ostean).

— Kanpoko leku-izenak nola esan, horra hor beste buruhauste handi bat egunero egunerokoa. Gaur egun, Elhuyarrek eta Andolin Eguzkizak eta Gorka Palaziok egindako lanei esker badoa arazo hau apurka-apurka argituz eta finkatuz, batez ere nola idatzi behar diren leku izenok. Horrez gainera, gero esta normalagoa da euskarazko lanetan idatzita ikustea ere, eta horrek eragin handia dauka izenak finkatzeko. Baina nola esan, nola ahoskatu behar dira. Toponimia arloko adituen artean, batzuk esaten dute lekuan nola esaten den hala esan behar dela. Adibidez, espainolez Madrid bada eta frantsesez Bourdeaux, guk hala esan beharko genituzke euskaraz ari garenean ere. Baina gure erreferentzia hemengo hiztuna denez beti, ikusten dugu Madril eta Bordele esaten direla. Hori da Elhuyarrek hartutako bidea eta guk ere horri heldu diogu. Baina Brussela, Strasburg, Geneva idatzi orduan ahoskatzeko eredurik ez daukagu herrian. Nola interpretatu behar dira orduan aukeratutako grafia horiek? Gueneva/Jeneva/Yeneva? Jakina, arazoa askoz ere zailagoa da zenbat eta izen ezezagunagoak izan. Arlo honetan uste dut oraindik asko falta dela dena ondo finkatzeko baina oso garrantzitsua da, eta komeni da ahalbait arinen atlas onak atera, eta irakaskuntza, komunikabi-deak eta ostantzeko beste arlo guztiak batera ibiltzea.

— Berba eta esamolde batzuk jatorrizko kontestuan zuten zentzua aldatuta, zabaldua edo moldatuta erabiltzen dira gaur egun. Adibidez, “burutu” “egin”en parekotzat erabiltzen da sarritan, “luzatu” “eskaini, opatu”ren zentzuan, “kaixo”, “izorratu” eta “kriston(a)” edozein kontestutan. Era honetako prozesuak hizkuntzak beraz duen garapenerako joeratzat hartu eta erabilera berriari pasoa utziko zaio ala lehengo erabilera bueltatzeke ahalegina egin behar da? Zein kasutan bai eta zeinetan ez? Eta zergatik?

— Umorea, barregarritasuna, txiste errazak egiteko erdarara jotzeko joera oso nabarmena dago, besteak beste errekurtsu gutxi daukagulako guk horretarako (eta dauzkagunak ez ditugulako behar beste ezagutzen). Bainaaldi berean hori berori egiten du jendeak kalean. Euskaraz ari garenean parra-parra darabiltzagu “bueno, venga, vale” muletilak, eta osterara, umeentzako programetan asko ta asko erabiltzen direla konturatu gara, eta orain neurritz erabiltzeko aholkua dago. Baina hori nahiko da ala guztiz baztertu beharko liriateke? Eta baztertzekotan zer erabili euron ordez?

— Hika erabili ala ez. Erabiltzekotan noiz, non, zenbat, eta nolako hika. Honetan ere, hika erabiltzeko ohitura dutenentzat ezinbesteko errekurtsua da hika hainbat girotan, erabiltzeko ohitura ez dutenentzat osterara, traba. Telebistak ahozko hizkerari eutsi behar dio eta ezin dio uko egin hikako tratamenduak zabaltzen duen aberastasunari. Baina orduan oso zuhur jokatu behar da batzuen eta besteen arteko oreka litzeko. Esate baterako, umeentzako marrazki bizidunetan egokia da hika erabiltzea? Zenbat umeak ezagutzen du hika? Eta erabili? Bestalde, umeak ume dira baina ez leloak, eta nahiz eta erabiltzeko ohiturarik euki ez, ulertzeko gai dira, beraz, bide hori hika sartzeko erabiltzea komeni da? Sartuko da benetan hika marrazkietan ikusten dutelako?

— Ahoskera eta entonazioa: Zer esan beharko litzateke entonazioari buruz? Eta nola ahoskatu behar dira *j* eta *g* grafiak? (joan, jan, jai, erloju, geologia, gel). Eta “horiek” hitza? Eta bustidurak: baina, isilik, gaisorik...? Hitz hauetan bustidura egiteak gero “bakotxa, ekatxa, hatxa” esateko bidea emango du? Batzuk beste batzuk baino bustidura gehiago erabiltzen dute euren hizkeran, baina non dago muga esateko gorrixka, xamar, horixe, hauetxek eta antzekoak nahiz eta kontestu formalean ibili? Eta, azken batean ahoskera batu (bakartu zentzuan) beharrik badago? Ahoskera bakarria erabiltzea ez ote da bizitasun eta nortasuna galtzea?

Zerrenda hau asko luza daiteke eta luzatu egin beharko da, baina hasteko hainbat gauza dagoela uste dut. Galderetariko batzuk erraz erantzuteko modukoak dira, beste batzuk gehiago zehaztu beharrekoak erantzun ahal izateko, eta beste batzuk dauden-daudenean utzi beharre-

koak. Edozein modutan, euskarak eragina daukan arlo guztietan berdintsu jokatzeari izango litzateke onena, benetan finka dadin. Bestela, eskolan irakatsitakoa alferrekoa izango da gero telebistan ezberdin entzuten bada, eta telebistan egindako ahalegina alferrekoa izango da komunikabide idatzietan txarto agertzen bada, eta abar eta abar katea nahi beste luzatu arte.